



**Bilboko  
Elizbarrutia**  
DIÓCESIS DE BILBAO

# **BESTEekin BATERA GARA**

**C Saioa**

**ETXEAN, FAMILIAN EGITEKO**

Delegación de Anuncio y Catequesis  
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza





**"... bakoitzari bere  
gaitasunaren arabera"  
Mt 25, 15**

## **1. Helburu nagusia**

- Jainkoak, zorioneko izan gaitzen eta mundu hobearen eraikuntzan Berarekin elkarlanean jardun dezagun, bizia oparitu digula aitortu.

## **2. Helburu bereziak**

- Jainkoan eman dizkigun gaitasunez jabetu eta esker ona adierazi.
- Gure zentzumen eta gaitasunez baliatuz, besteekin eta Jainkoarekin hartu-emana izan dezakegula konturatu.
- Beharrizan gorrian daudenak aurkitzeko eta beraiei laguntzeko Jesus beti dagoela prest aitortu.
- Egunez egun, gure gaitasunak garatuz, mundu hobea egiten lagun dezakegula ikusi.

## **3. SAIOAK**

- C Saioa, etxean, familian egiteko.

## **4. Aurkituko duzuna**

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitza, txatala.
- Abestia / ipuina / bideoa.
- Saioaren garapeneko jarduera eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

# C Saioa etxean, familian egiteko



## Motibazioa

- Garen guztia, gu geu, besteak eta mundu osoa zorioneko izateko zer egin dezakegun konturatu eta eskertu.



## Azpimarrak

- Besteekin batera hazten gara.
- Denok ditugu gaitasunak eta askotarikoak dira.
- Gure gaitasunak besteen esanetara jartzea dagokigu, denon artean mundu hobe egin ahal izateko.



## Idea nagusiak

- Gorputz osoa dugu harremanetarako bitarteko.
- Gure gaitasunekin, mundu hobe egingo dugu.
- Familian, esker ona adieraziko dugu gure talentuengatik.



## Saioaren garapena begi-kolpe batean

### Jainkoaren Hitza, txatal argitzailea

Talentuen parabola, Mt 25, 14-30

"... bakoitzari bere gaitasunaren arabera"  
Mt 25, 15



**Ikusteko,  
klikatu irudian**

### Bideoa


**Ikusteko,  
klikatu irudian**



Baloreak, "Elkartasuna"

### Jarduera


- Kate-mailaren antzekoak gara. Kate-maila egin kartulina edo lazo batez.




### Bilketa eta laburpena egiteko proposamena

- Zer egin dugu?
- Zer sentitu dugu?
- Zer ikasi dugu
- Eskerrak emango ditugu, abestuz eta dantzatuz...: "Sobre todo gracias", Oscar Santosena

**Abesteko,  
klikatu irudian**





## Saiorako gida

### Familiarentzat...



#### Lehenengo unea. Argibideak etxean elkarrizketan jarduteko

- Adierazi hurrei, denboraren buruan haziz joan direla eta aurrerapenak izan dituztela hainbat gaitasunetan. Zerbait dastatuz, zein jaki den jakiteko gauza dira edo soinua entzun eta zein melodia den jakiteko, edo usaindu eta zein animalia den jakiteko... Eta irakurtzen, idazten... ere badakite, asko luzatu dira, hobeto egiten dute lasterka edo jauzi... Lehen ezin zuten edo ez zekiten hainbat gauza egiteko gauza dira orain.

Jolastu eta antzeman gauzak ukimenaren bidez; begiak itxita, identifikatu soinua; bereizi zapoak; gorde oreka hanka baten gainean; aho-korapiloak errepikatu...

- Katekesiko saioan egin dutenari buruz galdetu hurrei. Zer egin dute? Nola sentitu dira? Katekesian egin duten lorea "oparitzeko" eta zer esan nahi duen azaltzeko eskatu hurrei.

Gurasook ere azaldu hurrei saioan egin duzuen loreari buruzkoak; eta familiako kideren batek "lorerik" ez badu, egin ezazue ariketa hau etxeko guztiekin.

Lore horretan jasotzen dira gure talentuak, besteen esanetara jarri nahi duguna. Hitz egin denok ditugun talentuei buruz. Elkarrengandik desberdintzen gaituzten, baina, balio bera duten talentu eta gaitasunak dira. Ondorengo bideoa ikusi, Baloreak "Elkartasuna" eta horri buruz jardungo dugu familian.

**Ikusteko,  
klikatu irudian**



#### Bigarren unea. Etxean egin eta katekesiko hurrengo saiora eramateko ariketa

- Barrutik nahiz kanpotik, denok desberdinak garela ikusi dugu. Askotariko gaitasunak ditugu. Guztiok egiten dugu zerbait ondo... Baina ezinbestekoa da guztion gaitasunak biltzea aurrera egiteko. Kate-mailen antzekoak gara.
- Kate-mailak egingo ditugu koloretako kartulinaz edo lazoz. Ondoren, katekesiko kide guztiok maila horiek lotu eta katea osatuko dugu: Senidetasunaren katea.



## **Hirugarren unea. Otoitzaldia familian**

- **“Egunean zehar, zein unetan gauden denok ikusi eta orduan bildu”**. Ez da erraza izaten, baina seguru aurkituko duguna, egunean... edo asteen, 10-15 minutuko tartea elkartu eta otoitz egiteko.
- **“Musika apur bat”**. Itzali etxeko tramankulu zaratatsu guztiak eta lasaitzen, abiadura moteltzen lagunduko digun musika jarri.
- **“Isilunea”**. Etxea isilik, zaratarik gabe dugula, isiltasuna ‘entzuteko’, dena itzalita dagoenean zer entzuten den jakiteko, aukera izango dugu.
- **“Geure buruaren barrualdera begiratu”**. Geure burua aztertuko dugu nola sentitzen garen ikusteko: alai, triste, baikor, ezkor, amorratuta, sututa, esker oneko... eta besteen aurrean batera jarriko dugu.
- **“Zerrenda eta eginkizuna”**. Familiako kide bakoitzak bere buruarengan eta familiako beste kide batengan antzemandako bi talentu edo gaitasun nabarmenduko ditu eta, gero, batera jarri. Guztion artean, elkarrekin, familia bezala egin dezakegun konpromisoren bat hartuko dugu, horrela, gure talentuen bitartez, gure inguruan, gure artean, senidetasuna haz dadin.
- **“Jainkoari kontatuko diogu”**. Eskerrak emango dizkiogu Jainkoari egunean zehar bizi izandako sentimendu positibo eta gauza onengatik. Eta laguntza eskatuko diogu, gure talentuak besteen esanetara jar ditzagun.
- **“Arnasa hartu”**. Berriz ere, isiltasuna “entzun” egingo dugu. Une batez arnasa patxadaz hartu eta, ondoren, ohiko gauzetara itzuliko gara.

Gure denbora husteak, geldiunea egin eta pentsatzeak, geure barrualdera begiratzeak, une batez Jainkoarengan pentsatzeko aukera ematen digu. Eta harrigarria da, Nazareteko Jesusen Jainkoarekin bat egin ondoren, bizitza, egunerokoa, beti desberdina dela egiaztatzea.

Amaitzeko, elkarrekin dantzatuko dugu Oscar Santosen “Sobre todo, gracias” abestia.

**Dantzatzeke,  
klikatu irudian**

